

"INVESTIGO" PROGRAMA

Programa honen helburua da enplegu eskatzaile diren **gazteak kontratatzeagatiko** Investigo Programaren dirulaguntzak ematea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (Europar Batasunak-NextGeneration EUk finantzatuta) esparruan, Programaren onuradun diren erakunde eta zentroyen eskumenekoak diren **ikerketa eta berrikuntzako funtzio, zeregin eta ekimenak** garatu eta gauzatzeko.

Ikerketa eta berrikuntzako ekimen horiek honako hauekin lotutako lanbideetan garatuko dira ahal dela: osasuna, trantsizio ekologikoa, ekonomia berdea eta zerbitzuen digitalizazioa eta "Data Science".

Enplegu eskaintzak **interes adierazpenetan** egingo dira; horiek Lanbideak kudeatuko ditu, hautagaitzak automatikoki parekatzearen bidez eta horiek Lanbideren webgunean ezagutaraztearen bidez. Pertsonen azken hautaketa erakunde onuradunari dagokio eta, horretarako, curriculum vitae itsua erabiliko du. Ezin izango da kontratatu aurre-aurreko sei hilabeteko epean erakunde berean edozein ikertzaile postu bete duen pertsonarik.

Kontratuek 12 hilabete iraungo dute, gutxienez, eta 2 urte, gehienez. Kontratuak lanaldi osoak izango dira.

Erakunde bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du kontratazio proposamen guztiekin. UPV/EHUK deialdian erakunde gisa izango duen parte hartzea bere osotasunean baloratuko da, betiere deialdiak eskaintzen dituen baldintzak UPV/EHUren araudira egokitzeko aukerak kontuan hartuta.

Lehenengo fase honetan, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak informatzaile gisa esku hartzen du deialdiaren berri emateko eta bertan parte hartzeko jasotzen diren hasierako proposamenen kudeatzaile gisa. Bigarren fasean, UPV/EHUK deialdian parte hartzea onartuko balitz, jasotako proposamenak ebaluatuko lirakeke eskaera orokorrean sartzeko, kontuan hartuta, besteak beste, baterako finantzaketarako aukera.